

AGINDUA, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikaren sailburuarena, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako erakunde autonomiadunak (HABEk) eskaintzen dituen zerbitzuen eta betetzen dituen jardueren prezio publikoak ezartzen dituen Agindua, 2020ko abuztuaren 20koa, Kultura eta Hizkuntza Politikaren sailburuarena, laugarren aldiz aldatzeko, Agindu-mailako xedapen orokorra abian jartzen duena.

Azaroaren 25eko 29/ 1983 Legeak Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortu zuen benetako herri elebiduna lortzeko xedez herritarren euskalduntzearen bitartez. Horretarako, aipatu Legeak hainbat betekizun atxikitzen dizkio HABEri, erakunde honek, bere aldetik, eskaintzen dituen zerbitzu eta betetzen dituen jardueren bidez burutzen dituenak, hain zuzen ere.

Zerbitzu eta jarduera horien ordainari dagokionez, 1/2025 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 20koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasen eta Prezio Publikoen Legearen testu bategina onartzekoak tasa eta prezio publikoak arautzen ditu, 32. eta 35. artetako artikuluetan prezio horiek ezartzeko kontuan izan behar diren irizpideak adieraziz.

Aipatutako Legegintzako Dekretuaren aurreko legeria garatuz, hemen esanguratsu diren gaiekiko esan diren arauekin ia erabateko antzekotasuna zuen , momentu bakoitzean prezio publikoen arabera ordain daitezkeen zerbitzu eta jarduerak ezarri izan ditu Jaurlaritzak, Dekretu bidez; azkena, uztailaren 30eko 397/ 2013 Dekretua da. Bere eranskinaren 18. atalean jasotzen ditu, hain zuzen ere, HABEk eskaintzen dituen zerbitzuen artean prezio publikoen arabera ordain daitezkeenak.

ORDEN de la Vicepresidenta Primera del Gobierno y Consejera de Cultura y Política Lingüística, por la que se inicia el procedimiento de elaboración de una disposición general con rango de Orden, de cuarta modificación de la Orden de 20 de agosto de 2020, del Consejero de Cultura y Política Lingüística, por la que se establecen los precios públicos de los servicios y actividades prestados por el Organismo Autónomo HABE-Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako erakunde autonomiaduna.

La Ley 29/1983, de 25 de noviembre, creó el Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de Adultos con el fin de consolidar una población realmente bilingüe, a través de la prestación de un servicio de euskaldunización de la ciudadanía. A tal fin, la citada Ley reconoce a HABE una serie de funciones que este organismo, por su parte, realiza a través de los servicios y actividades que ofrece y ejecuta.

En cuanto a la compensación de estos servicios y actividades, el Decreto Legislativo 1/2025, de 20 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Tasas y Precios Públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, regula las tasas y precios públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, señalando los criterios que deben tenerse en cuenta para su determinación en los artículos 32 a 35.

En desarrollo de la legislación antecedente al citado Decreto Legislativo, de similitud prácticamente total, en los extremos aquí relevantes, con la norma precitada, el Gobierno ha establecido mediante Decreto los servicios y actividades susceptibles de ser retribuidos con precios públicos en cada momento, siendo el último el Decreto 397/2013, de 30 de julio. En el apartado 18 de su anexo recoge, precisamente, los servicios que ofrece HABE que pueden ser retribuidos mediante precios públicos.

Araudi horretan ezarritakoari jarraikiz, 2020ko abuztuaren 12ko Aginduaren bitartez finkatu ziren HABEk eskaintzen dituen zerbitzuen eta betetzen dituen jardueren prezio publikoak, eta 2021eko abuztuaren 11ko Aginduz lehenengo aldiz aldatu ziren Agindu hartan xedatutako prezioak.

2023an, aurreko zenbait ekitalditan bezala, HABEk urtero egiten duen hausnarketa ekonomikoaren ondorioz, aipatu Aginduetan finkatutako prezioak eguneratu ziren.

Ondoren, 2024ko abuztuaren 13ko Aginduak egindako hirugarren aldaketa baten ondorioz, azterketa-eskubideei buruzko prezio publikoak igo ziren, prezio horiei eman zaien tratamenduaren eta kostuen arteko proportzioari eutsiz.

Orain ere antzeko egoera planteatzen da. Alde batetik, material didaktikoaren salmentari buruz ezarritako prezioen arau-omisioa konpondu behar da; 397/2013 Dekretuan jasotako gaia zen, baina gaur egun ez dago jasota hura garatzeko araudian. Bestalde, hautaketa eta hizkuntza-ebaluazioko zerbitzuek, eguneratuak izan ohi direnek, ez ezik, euskara irakasteko zerbitzuek ere, aldizkakoagoak baitira, eguneratzeko beharra dute. Horregatik, xedapen orokor berri bat izapidetu behar da, aipatutako agindu arauemailea aldatzeko.

Ekainaren 30eko 6/2022 Legeak, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenak (aurrerantzean, XOEPL), 12. artikuluko 1. paragrafoan xedatzen du: "Xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da", kasu honetan, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren agindu bidez.

Izan ere, Jaurlaritzaren lehen lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari dagokio aipatutako xedapen orokorra egiteko prozedurari hasiera ematea, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko sailak sortu,

Conforme a lo establecido en dicha normativa, mediante Orden de 12 de agosto de 2020 se fijaron los precios públicos de los servicios y actividades que presta HABE, y por Orden de 11 de agosto de 2021 se modificaron por primera vez los precios establecidos en dicha Orden.

En 2023, al igual que en ejercicios anteriores, del análisis económico que HABE realiza anualmente, se actualizaron los precios fijados en las citadas Órdenes.

Posteriormente, una tercera modificación producida por Orden de 13 de agosto de 2024, dio cauce a la necesidad de subir los precios públicos relativos a los derechos de examinación, manteniendo la proporción entre el tratamiento que se ha dado a esos precios y los costes.

Nuevamente se plantea ahora una situación análoga. De un lado, debe solventarse la omisión normativa de los precios establecidos sobre la venta de material didáctico, que era una cuestión recogida en el antecitado Decreto 397/2013 pero no tiene actualmente reflejo en su normativa de desarrollo. De otro lado, no solo los servicios de selección y evaluación lingüística, habitualmente actualizados, sino también los servicios de enseñanza del euskera, más ocasionales, necesitan todos ellos ser actualizados. Por esa razón, debe tramitarse una nueva disposición de carácter general que modifique la citada Orden normativa.

El apartado 1 del artículo 12 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General (en adelante, LPEDG), dispone que "El procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general se iniciará por Orden del Consejero titular del Departamento competente por razón de la materia sobre la que versen", en este caso, por Orden del Consejero de Cultura y Política Lingüística.

En efecto, compete a la Vicepresidenta primera del Gobierno y Consejera de Cultura y Política Lingüística el inicio del procedimiento de elaboración de la mencionada disposición de carácter general, en virtud de las competencias atribuidas en

ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuan eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuan esleitutako eskumenen indarrez.

Horrenbestez,

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Agindu-proiektua egiteko prozedura hasteko agintzea, laugarren aldiz aldatzeko 2020ko abuztuaren 12ko Aginduaren bitartez ezarritako prezioak, hain zuzen ere, HABEk eskaintzen dituen zerbitzuen eta betetzen dituen jardueren prezio publikoak.

Bigarrena.- Agindu-proiektua hasteko, Agindu honen eranskinean jasotako oinarriak hartuko dira aintzat, XOEPLan aurreikusitakoaren arabera.

el Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, y en el Decreto 389/2024, de 26 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística.

En su virtud,

RESUELVO:

Primero.- Ordenar el inicio del procedimiento de elaboración del proyecto de Orden de cuarta modificación de los precios establecidos en la Orden de 12 de agosto de 2020, sobre precios públicos de los servicios y actividades que presta HABE.

Segundo.- El Proyecto de Orden cuyo inicio se ordena se elaborará conforme a los criterios y los trámites que se contienen en el documento anexo a esta Orden.

Ibone Bengoetxea Otaolea

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburua
Vicepresidenta primera del Gobierno y Consejera de Cultura y Política Lingüística

1.- Xedea eta helburua

Agindu honen xedea da HABEk euskararen irakaskuntzaren arloan eskaintzen dituen zerbitzuei dagozkien prezio publikoak eguneratzea eta Helduentzako Euskara Irakaskuntzaren Oinarrizko Curriculumean ezarritako euskarazko komunikazio-gaitasunaren mailak ebaluatu eta egiaztatzea, irakaskuntza horrekin lotutako prestakuntza barne.

2.- Bideragarritasun juridikoa eta materiala

Agindu-proiektu honen bideragarritasun juridiko eta materiala azaroaren 25eko 29/1983 Legeak, erakunde hori sortzekoak eta euskaltegiak arautzekoak, helduen euskalduntzearen arloan HABEri aitortzen dizkion eskumenen esparruan oinarritzen da.

Bestalde, martxoaren 20ko 1/2025 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bateginak, 30etik 35era bitartean, prezio publiko horiek finkatzeko bete beharko diren irizpide orokorrak ezartzen ditu.

Nahiz eta aipatutako Legegintzako Dekretu horrek oraindik ez duen garapen-araudirik, espediente honetan kontuan hartutako ondorioetarako, egokia da baina, eta ez da kontraesankorra, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen prezio publikoen bidez ordain daitezkeen zerbitzu eta jarduerak zehazten dituen uztailearen 30eko 397/2013 Dekretuan aurreikusitakoa. Dekretu horrek 2007an egindako tasa eta prezio publikoei buruzko aurreko Legegintzako Dekretua garatzen zuen, eta ez da formalki indargabetu. Dekretu horrek ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko sailek eta haren erakunde autonomoek prezio publikoak kobratu ahal

1.- Objeto y finalidad

El objeto de la presente Orden es la actualización de los precios públicos correspondientes a los servicios que HABE ofrece en el ámbito de la enseñanza y de la evaluación y acreditación de niveles de capacitación comunicativa en euskera establecidos en el Currículo Básico de Enseñanza de Euskera a Personas Adultas, incluida la formación relacionada con dicha enseñanza.

2.- Viabilidad jurídica y material

La viabilidad jurídica y material de este proyecto de Orden se sustenta en el marco de las competencias reconocidas a HABE en el artículo 2 de la Ley 29/1983, de 25 de noviembre, de creación de dicho ente y de regulación de los euskaltegis, en materia de euskaldunización de personas adultas.

Por su parte, el Texto Refundido de la Ley de Tasas y Precios Públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/2025, de 20 de marzo, 30 a 35 los criterios generales a los que habrá de sujetarse la fijación de dichos precios públicos.

Si bien el reciente Decreto Legislativo señalado aún no dispone de normativa de desarrollo, a los efectos considerados en este expediente, resulta pertinente y no contradictorio lo previsto en el Decreto 397/2013, de 30 de julio, por el que se determinan los servicios y actividades susceptibles de ser retribuidos mediante precios públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de sus organismos autónomos, que desarrollaba el anterior Decreto Legislativo sobre tasas y precios públicos, elaborado en 2007, y que no ha sido formalmente derogado. El citado Decreto establece que los Departamentos de la comunidad Autónoma del País Vasco y sus

izango dituzte dekretu horren eranskinean zerrendatzen diren zerbitzuengatik, eta, aldi berean, dekretu horren hirugarren artikuluko xedatzen du prezio publikoen zenbatekoa ezartzeko edo aldatzeko, aldez aurretik ogasunaren arloan eskumena duen sailak txosten loteslea egin beharko duela, eta dagokion sailburuak edo prezio horiek jaso behar dituen erakunde autonomoari dagokion sailburuak agindu bidez egin beharko duela.

Hain zuzen ere, uztailaren 30eko 397/2013 Dekretuaren eranskinaren 18. apartatuan, HABEk prezio publikoak kobratu ahal izango dituen zerbitzu eta jardueren artean sartzen dira material didaktikoaren salmentarekin, euskararen irakaskuntzarekin eta hizkuntza-hautaketarekin eta - ebaluazioarekin lotutako zerbitzu publikoak.

Prozedura hasteko agindua emateko eskumenari dagokionez, XOEPLren 12. artikuluko 1. paragrafoak honako hau xedatzen du: "xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da"; kasu honetan, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren agindu bidez.

3.- Ondorioak ordenamendu juridikoan

Orain prestatzen hasiko den agindu-proiektuak laugarren aldiz aldatzen du Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko abuztuaren 4ko Agindua, zeinaren lehen aldaketa Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2021eko uztailaren 30eko Aginduaren bidez onartu baitzen.

4.- Aurretiazko balorazio generoaren aldeko ikuspegitik

Izapidetzen den arau-aldaketak ez du garrantzirik generoaren aldeko ikuspegitik.

organismos autónomos podrá cobrar precios públicos por los servicios que se relacionan en el Anexo de dicho Decreto, al tiempo que sus artículo tercero dispone que la fijación o modificación de la cuantía de los precios públicos se realizará, previo informe vinculante del Departamento competente en materia de Hacienda, por Orden del Consejero o Consejera del Departamento correspondiente o del que dependa el organismo autónomo que haya de percibirlos.

En efecto, el apartado 18 del Anexo del Decreto 397/2013, de 30 de julio, contempla entre los servicios y actividades por cuya prestación HABE podrá cobrar precios públicos, los servicios públicos relacionados con la venta de material didáctico, con la enseñanza de euskera y con la selección y evaluación lingüística.

En cuanto a la competencia para ordenar la iniciación del procedimiento, la LPEDCG, en su artículo 12, apartado 1, dispone que "el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general se iniciará por orden del consejero o consejera titular del Departamento competente por razón de la materia sobre la que versen", en este caso, mediante Orden del Consejero de Cultura y Política Lingüística.

3.- Repercusiones en el ordenamiento jurídico

El proyecto de Orden cuya elaboración se inicia ahora modifica por cuarta vez la Orden de 4 de agosto de 2020, del Consejero de Cultura y Política Lingüística, cuya primera modificación fue aprobada por Orden de 30 de julio de 2021, del Consejero de Cultura y Política Lingüística.

4.- Estimación preliminar sobre relevancia desde el punto de vista del género

La modificación proyectada no tiene relevancia desde el punto de vista del género.

5.- Proiektuaren aurrekontu-eraginak

- Prezio publikoen eguneratzeak HABEren sarrera-aurrekontuen 3. Kapituluako "Tasak, prezio publikoak eta bestelako sarrerak" deiturikotetan, sarrera-aurrekontuen % 3 igotzea ekarri lezake.

6.- Bidezkoak diren izapideak eta txostenak

XOEPLren arabera, honako izapide eta txosten hauek egin eta onartu behar dira agindu hau egiteko:

6.1.- Prozedura osoaren izapidetzea (ondoren deskribatzen da, beharrezkoak diren txostenekin batera) izapidetze elektronikorako "Tramitagune" aplikazio informatikoaren bitartez gauzatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozedura modu elektronikoan izapidetzeko jarraibideak onartzeko Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko Erabakiari jarraikiz.

6.2.- Ez da beharrezkotzat jotzen aldeztatik herritarrei kontsulta egitea, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan eta XOEPLren 11. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, aipatu 133. artikuluren 4. zenbakian aurreikusitako aukera kontuan hartuta. Horren arabera, aurretiazko kontsulta hori egin gabe utzi ahal izango da arau-proposamenak jardura ekonomikoan eragin nabarmenik ez duenean, hartzaileei betebeharrak garrantzitsurik ezartzen ez dienean edo gai baten alderdi partzialak arautzen ez dituztenean.

Hain zuzen ere, proiektaturiko xedapen orokorraren xedea aldeztatik araututako prezioak eguneratze hutsa denez, eta kasu honetan HABEk emandako zerbitzuei ia

5.- Incidencias presupuestarias del proyecto

La actualización de los precios relativos al Capítulo 3 de los presupuestos de ingresos de HABE, "Tasas, precios públicos y otros ingresos", y de los servicios de evaluación y acreditación de capacidad lingüística del art. 3 puede suponer un incremento cercano al 3% del presupuesto de ingresos.

6.- Trámites e informes que se estiman procedentes

De conformidad con lo dispuesto por la LPEDCG, los trámites e informes que se estiman necesarios para la elaboración y aprobación de la presente Orden son los siguientes:

6.1.- La tramitación de todo el procedimiento, cuyos trámites e informes se detallan a continuación, se realizará a través de la aplicación informática de tramitación electrónica "Tramitagune", y ello conforme al Acuerdo del Consejo de Gobierno de 12 de diciembre de 2017, por el que se aprueban las instrucciones para la tramitación electrónica de determinados procedimientos de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

6.2.- No se estima necesaria la consulta previa a la ciudadanía prevista en el artículo 133.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, así como en el artículo 11 de la LPEDCG, en atención a la posibilidad prevista en el apartado 4 del mencionado artículo 133, según el cual podrá omitirse esa consulta previa cuando la propuesta normativa no tenga un impacto significativo en la actividad económica, no imponga obligaciones relevantes a los destinatarios o regule aspectos parciales de una materia.

En efecto, siendo el objeto de la disposición general proyectada una mera actualización de precios previamente regulados, que en el presente caso afecta

esklusiboki eragiten dienez, proiektuaren berri eragindako sail eta erakundeei ematea eta haiek proiektua egiteko prozesuan parte hartzeko aukera bermatuta geratzen da, prozedurari hasiera emateko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-oholean argitaratzean automatikoki egiten den sail guztiei helaraztearekin, egoki iritzitako ohar guztiak egin ditzaten.

Hala gertatzen da proiektatzen den arauaren bidez egin nahi diren prezio-eguneratze guztiekin, hau da, euskara irakasteko zerbitzuekin eta euskarazko komunikazio-gaitasuna ebaluatu eta egiaztatzeko zerbitzuekin, mintegi, kongresu, jardunaldi eta ikastaroei dagozkien prezioekin izan ezik, horien eragina oso txikia baita proiektatutako prezio-eguneratze guztietan, bai HABEren aurrekontuaren ikuspegitik, bai zerbitzuaren hartzailearen ikuspegitik, eta ez du eragin nabarmenik sortzen jarduera ekonomikoan.

6.3.- Aurretiazko kontsulta egin ondoren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak agindu-proiektua egiteko prozedura hasiko du, XOEPLren 12. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz. XOEPLren 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuko da. Argitalpen horrek sail guztiei automatikoki jakinaraztea ekarriko du, hala badagokio, ekimenari buruzko oharra egin ahal izan ditzaten.

Halaber, hasteko agindua ezagutza partekatuko lankidetzagunean – LEGESAREA– txertatuko da.

casi en exclusiva a servicios prestados por HABE, la comunicación del proyecto a los departamentos y entidades afectadas, así como la posibilidad de que las mismas participen en el proceso de elaboración queda garantizada con el traslado del inicio del procedimiento a todos los departamentos que automáticamente se realiza al publicarse la presente Orden en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a fin de que formulen cuantas observaciones estimen oportunas. por los servicios de evaluación y acreditación de la capacidad lingüística

Es el caso de todas las actualizaciones de precio que se pretenden abordar mediante la norma que se proyecta, esto es, servicios de enseñanza de euskera y servicios de evaluación y acreditación de competencia comunicativa en euskera, a excepción de los precios correspondientes a los seminarios, congresos, jornadas y cursos, cuya incidencia es ínfima respecto al conjunto de las actualizaciones de precio proyectadas, tanto desde el punto de vista presupuestario de HABE, como desde el punto de vista de la parte destinataria del servicio, sin que haya un impacto significativo en la actividad económica.

6.3.- El procedimiento de elaboración del proyecto de norma se iniciará mediante Orden del Consejero de Cultura y Política Lingüística, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 12 de la LPEDCG. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 13.2 de la LPEDCG, esta orden de inicio será objeto de publicación en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Dicha publicación supondrá la comunicación automática al conjunto de los departamentos, a fin de que, en su caso, puedan formular observaciones a la iniciativa.

Asimismo, la orden de inicio se insertará en el espacio colaborativo de conocimiento compartido –LEGESAREA–.

6.4.- Agindua bi hizkuntza ofizialetan, euskaraz eta gaztelaniaz, idatziko da argitara dadin. Era berean, prozedura osoan zehar, prestaketan parte hartzen dutenen eta hartzaileen hizkuntza-berdintasuna bermatuko da.

Era berean, aginduen azken testuaren euskarazko bertsioak gaztelaniazko bertsioarekiko duen zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatze aldera, eta alderantziz, Eusko Jaurlaritzako Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) gainbegiratu du proiektuaren idazketa, apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuarekin bat etorriz (dekretu horren bidez, haren itzulpen-erakunde autonomoen zeharkako zerbitzuen zentralizazioa zehazten da).

6.5.- XOEPLren 15. artikulua arabera, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak agindu-proiektua onartu beharko du dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik.

6.6.- Hasiera batean, aurreikusitako agindu-proiektua egiteko eta onartzeko, txosten hauek egin behar dira:

- **Txosten juridikoa, HABEren Aholkulartiza Juridikoak emandakoa** (XOEPLaren 15.4 artikulua eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa antolatzeari buruzko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 4.a) artikulua), honako alde hauek barne dituela:
 - +arau-eragina aztertzeke memoria
 - +Enpresa-inpaktuaren txostena

- **Memoria ekonomikoa:** hasierako aginduan jasotako aurreikuspenekin alderatuz izandako aldaketan aurrean, hasteko aginduan aurreikusitako zehaztapenei dagozkien kosten estimazioa, gastuen eta diru-sarreraren kuantifikazioa eta aurrekontuetan izango duen eragina,

6.4.- La Orden será redactada en las dos lenguas oficiales, euskera y castellano, a efectos de su publicación. Del mismo modo, a lo largo de todo el procedimiento, se garantizará la igualdad lingüística de quienes participan en la elaboración y sus destinatarios.

Asimismo, y a fin de garantizar la exactitud y equivalencia de la versión en euskera respecto de la versión en castellano, y viceversa, del texto final de la Orden, la redacción del proyecto será supervisada por el Servicio Oficial de Traductores del Gobierno Vasco Servicio Oficial de Traductores (IZO), de conformidad con el Decreto 48/2012, de 3 de abril, por el que se determina la centralización de los servicios transversales de traducción de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos.

6.5.- De conformidad con el artículo 15 de la LPEDCG, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan, el proyecto de orden será sometido a la aprobación previa del Consejero de Cultura y Política Lingüística.

6.6.- Los informes que, en principio, se requieren para la elaboración y aprobación del proyecto de Orden previsto son los siguientes:

- Informe Jurídico emitido por la Asesoría Jurídica de HABE** (artículo 15.4 LPEDCG y artículo 4.a) de la Ley 7/2016, de 2 de junio, de Ordenación del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco), que incluirá:
 - +memoria de análisis de impacto normativo
 - +Informe impacto de empresa

- Memoria económica:** a la vista de los cambios producidos respecto de las previsiones incluidas en la Orden de inicio, concreciones o estimaciones respecto de la estimación de costes prevista en la orden de inicio, con la cuantificación de gastos e ingresos y su repercusión en los

iturriak, finantzaketa-moduak eta EAEko Administrazioaren ekonomia- eta araudi-kontrola arautzen duen araudian zehaztutako alderdi guztiak ikusita, eta ex post gauzatutako den ebaluazioari buruzko aurreikuspena.

-Ez da beharrezkotzat jotzen Genero-eraginari buruzko txostena, Eusko Jaurlaritzak 2012ko abuztuaren 21ean onartutako Jarraibideen arabera, hain zuzen ere, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako Zuzendaria 40/2012 Ebazpenez argitaratutako Lehenengo Jarraibidearen 2. atalaren 1.d) puntuan zehaztutakoaren arabera. Jarraibide horri jarraikiz, ez beharrezkoa generoaren araberrako eragintxostena egitea xedapen-orokorrak egiteko prozeduran, egitasmoaren xedea indarrean dauden arauak aldatzea bada, betiere aldaketa funtsezkoa ez bada emakumeen eta gizonen egoerari dagokionez.

- **Euskararen erabilera normalizatzeko** txostena (Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

- **Zerga Administrazio**ko **Zuzendaritzaren txostena**, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 20ko 1/2025 Legegintzako Dekretuaren 33.3 artikuluan xedatutakoaren arabera lotesleatzen da.

-**Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren nahitaezko txostena.**

-Ez dira beharrezkoak ondorengo txostenak:
* Lan Harremanen Kontseiluaren eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arauetarako Batzordearen txostenak, politika ekonomiko eta sozialarekin duten lotura periferikoagatik.

presupuestos, las fuentes, los modos de financiación y cuantos extremos se determinen en la normativa que regule el ejercicio del control económico-normativo en la Administración de la CAE, así como previsión sobre la evaluación que se llevará a cabo ex post.

-No se considera necesario **Informe de Impacto de Género**, de conformidad con las Directrices aprobadas por el Gobierno Vasco el 21 de agosto de 2012, y publicadas por Resolución 40/2012, del Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, y en concreto en virtud de lo dispuesto en el punto 1.d) del apartado 2 de la Directriz Primera, según la cual no es necesario realizar un informe de impacto en función del género en el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general, cuando el proyecto tenga por objeto la modificación de las normas vigentes, siempre que la modificación no sea sustancial en relación con la situación de mujeres y hombres.

-Informe de **Normalización de uso del euskera** (Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas, Viceconsejería de Política Lingüística)

-Informe de la **Dirección de Administración Tributaria**, que se trata de un informe vinculante en virtud de lo dispuesto en el artículo 33.3 del Decreto Legislativo 1/2025, de 20 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Tasas y Precios Públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

-**Informe preceptivo de la Oficina de Control Económico**

-No proceden los siguientes informes:
*Informes del Consejo de Relaciones Labores y del Consejo Económico Social Vasco política económica y social, por su conexión periférica de la norma aquí tramitada con la política económica y social.

* Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena, udalerrien berezko eskumenei berariaz eragiten ez dielako.

* Legezketasun-txostena, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 12.g) artikuluan prezio publikoak ezartzen dituzten arauetarako aurreikusitako salbuespenaren arabera

Era berean, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidea salbuetsita geratzen da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17.4 artikuluan aurreikusitako salbuespena gertatzen delako. Horren arabera, aurrekontu- edo antolaketa-arauen kasuan, hemen aurreikusitako arauaren kasuan bezala, izapide mota hori alde batera utz daiteke.

7.- Europar Batasunaren aurreko izapideak

Ez da beharrezkotzat jotzen Europar Batasunean izapiderik egitea.

8.- Instrukzioa gauzatzeko izendatzen den administrazio-organoa

HABEren zuzendaritza nagusia arduratuko da prozedura bideratzeaz.

9.- Urteko Araugintza Plana

Hasi berri den xedapen-proiektua ez dago aurreikusita Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren 2025ko Urteko Arau Planean.

2025an 2025-2026 ikasturtean emango diren zerbitzuen kostuei begira egindako azterketa ekonomikoaren ondorioz antzeman da horien beharra, eta, beraz, ezinbestekoa da noiz hasi den xedapen-proiektuak eragindako prezioak eguneratzea, sortutako gastuen eta datorren ikasturtean zehar lortutako diru-sarreraren artean aurrekontu-desoreka handia saihesteko.

*Informe de la Comisión de Gobiernos Locales, por no afectar específicamente a competencias propias de los municipios.

*Informe de Legalidad, según la exención prevista para las normas que establecen precios públicos recogida en el artículo 12.g) del Decreto 144/2017, de 25 de abril, del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco.

Asimismo, queda excepcionado el trámite de Audiencia e Información pública por concurrir la salvedad prevista en el artículo 17.4 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, en cuya virtud se puede prescindir de este tipo de trámites en el caso de normas presupuestarias u organizativas, como es el caso de la norma aquí prevista.

7.- Trámites ante la Unión Europea

No se aprecia la necesidad de realizar ningún trámite ante la Unión Europea.

8.- La designación del órgano administrativo al que se encomienda la instrucción

La Dirección General de HABE será el órgano encargado de la instrucción del procedimiento.

9.- Plan Anual Normativo

El proyecto de disposición cuya elaboración se inicia no se encuentra previsto en el Plan Anual Normativo del Departamento de Cultura y Política Lingüística de 2025.

Su necesidad ha sido detectada como consecuencia del análisis económico efectuado en 2025 de cara a los costes de los servicios que se prestarán en el curso académico 2025-2026, por lo que resulta imprescindible proceder a la actualización de los precios afectados por el proyecto de disposición que se inicia, a fin de evitar un desequilibrio presupuestario importante entre los gastos generados y los ingresos

obtenidos a lo largo del próximo curso académico.